

HURA

Itzak: Antonio Valverde "Ayalde" renak

Doñua: Antxon Valverde

Zeruan illun eta
laño goiko mendian.
Ez dut hura ikusten
lagunen artian.

Kanpaiaren soñua
aizeak badarama.
Sutondoan triste
dago bere ama.

Ballarako neskatrak
dantzara ez dute nahi
haren oroimena
agertzen da nonnahi.

Mendi soro larreak
urdin eta berdea;
dagoen lekuak
bustin kolorea.

GARIA SALTZEN (herrikoia)

Garia saltzen nengoelarik
Donostiako kalean
dama gazte bat etorri zitzaidan
garia zenbana nukean.

—Besteendako amartaerdian
zuretzat ezkontzordean.

—Ezkontzordean balinbadezu
jarzaitz ezkon bidean.

ABENDUAREN ZAZPIAN (herrikoia)

Abenduaren zazpian
sartu ginaden Frantzian
ogei ta amar lakarri gatz
azukre bien erdian
ustez sekreto andian
pasa ginaden mendian.

Yo genduen Ziburu
ustez guziak seguru
bi gazteak ezkongaiak
zarrak ginaden iru
irabazi naiz zerbait diru
kukuak makur yo digu.

IRUÑAKO FERIETAN (herrikoia)

Iruñako ferietan
iragan San Ferminetan
ehun zaldi arribatu
Andaluziatik tropan
merkatu eder bat zautan
zagolarik bi lerrotan.

Bat zen pikart ta zuria
bota bai nion begia
andaluz batek egin daut
bi untz urheren galdia
eskain orduko erdia
—Hartzak iria duk zaldia.—

Han nintzan arrapatua
aginduaz dolutua;
urruntzeko izan banu
hirur arditen lekua
gizonez inguratua
iduri preso artua.

Nonbeitikan goiz aldera
arribatu naiz etchera
anderea jin zerautan
argiarekin atera
jarri behorrari beira
ezpaitzen kontent sobera!
—Hori che da behor tcharra
eta bertzalde chacharra!
Hortan gastatu dautazu
familiako beharra;
sal nintzazke sos batera
zaldia eta senharra!

DISTRIBUIDORA PAIS VASCO

SECCION DE DISCOS

Apartado 875

SAN SEBASTIAN